



EGK

II PROTOKOLOA -ZIRRIBORROA

GAZTE BATEK LANPOSTUAN BIZITZA GALDU EDO ISTRIPU LARRI BAT IZATEAREN ONDORIOZ GAZTERIAREN PREKARIETATEA SALATZEKO PROTOKOLOA

*34. Batzar Orokorrean onartzeko proposamena.

I_PROTOKOLOAREN HELBURUA

Protokolo honen helburua hurrengo da: gazteriaren lan prekarietatea eta honen ondorioz larrienak salatzea, eta honekin batera, gazteen lan baldintzak hobetzea aldarrikatu, ondorio hauek samurtu eta gazteek enplegu duinak lortu ditzaten.

Horretarako, gazte batek bere lanpostuan istripu bat izan duela jakiten denean EGK-k gauzatuko dituen ekintzak zehazten ditu protokolo honek.

II_PROTOKOLOAREN MARTXAN JARTZEA

Protokoloa hurrengo egoeretako bat gertatzen denean jarriko da martxan:

- Gazte bat lan istripu batean edo bere lanpostuari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik hiltzen denean jarriko da martxan.
- Gazte bat lan istripu baten ondorioz edo bere lanpostuari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik larriki zauritzen denean jarriko da martxan protokoloa. Larritasuna ospitaleratu behar izanagatik edo izandako zaurien larritasunagatik neurtuko da.

Protokoloa martxan jartzerako orduan hurrengo baldintzak izango dira kontutan:

- Langile gazteen adin tartea 16 eta 30 urte bitartekoa izango da.
- Pertsonaren jatorria dena delakoa ere, heriotza edo lan istripua EAE barruan gertatzen denean jarriko da martxan protokoloa. Horretaz gain, istripua edonon gertatzen dela ere, EAEko jatorria duen gazte bati gertatzen zaionean jarriko da martxan baita ere, informazioa lortu baldin badaiteke.
- GazteriaK lan munduan duen egoera berezia kontutan hartuta, protokolo honen baitan hurrengo egoeratan dauden gazteak protokoloa martxan jartzeko izango dira kontuan langile gisa:
 - * Edozein kontratu motarekin beste baten kontura lan egiten duen gaztea.
 - * Beka edo praktika ez laborala duen gaztea.
 - * Kontraturik gabe lan egiten duen gaztea.
 - * Autonomo bezala gizarte segurantzaren alta emandako gaztea.



III_PROTOKOLOA_GAZTE BATEN ISTRIPU LARRI EDO HERIOTZA LAN POSTUAN

1_Protokoloa martxan jartzekotan, EGK-k, Enplegu eta Komunikazio arloetatik abiatuta, hurrengo informazioa islatzen duen prentsa-ohar bat zabalduko du:

1.1_Istripuaren inguruko informazioa, pertsonaren lan egoera edo garrantzitsua den eta eskuragarri dagoen beste informazioa.

1.2_EGKk gazteriaren prekarietatearen inguruan eta honek lan segurtasunean dituen ondorioen aurrean duen iritzia. Hurrengo datuak jasoko dira:

- a) Gazteriaren prekarietatea eta gazteen enpleguaren politika publikoen inguruko datuak.
- b) Egotekotan, azken aldian lan eskubideetan egindako murrizketen informazioa.
- c) EGKk lan osasuna eta lan baldintzen inguruan dituen aldarrikapenak.

Honekin batera, kasuak kasu egokituko den oinarrizko testua aurkezten da:

Tokia eta data. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK)

...gazte langile batek lanpostuan zegoela zendu izana...

...gazte langile bat zauritua izan den lan istripu larri bat gertatu dela...

...salatu du prentsa ohar baten bitartez.

... istripuaren informazioa, pertsonaren lan egoera, eta abar.

Gazteriaren Kontseiluak...

...bere "atsekabea" adierazi du eta "familia eta lagunei besarkada bat" bidali nahi izan die. "Beste behin ere, gazte batek lanean zegoela bizitza galdu izana" deitoratu du EGK-k.

..."istripu honen ondorio larriak sentitu" ditu eta "gaztea laster hobetu dadin" espero du. "Beste behin ere, lan istripu larri batean gazte bat kaltetuta izana" deitoratu du EGK-k.

Gazte elkarten sareak azaldu duenez, "prekarietatea eta **lan baldintza kaskarrak lan-istripuen, lan-gaixotasunen eta lan-osasunaren okertzearen zergati zuzen bat dira**".

Hori dela eta, Gazteriaren Kontseiluak "gazteriaren lan baldintza prekarioak hobetu orde, azken urteetan nabarmenki kaskartzen ari direla" ohartarazi du. Horretaz gain, "egoera honek gazteen osasun fisiko eta mentalean eragin kaltegarriak dituela eta



lan istripuak zein prekarietatearekin harremana duten gaixotasunak pairatzeko aukerak areagotzen dituela” gehitu du.

Ildo honetan, EGK-k “gazteen lan egoera latza islatzen duten estatistika kezkarriak” gogoratu ditu:

- Langabezia: [%28,4 \(2014an\)](#)
- Behinbehinekotasuna: [%56,8 \(2013an\)](#)
- Gainkualifikazioa: [%63,0 \(2014ko II hiruhilekoan\)](#)
- Batz besteko soldata: [13.541,62€ \(2014ko II hiruhilekoan\)](#)
- Emakume eta gizon gazteen arteko soldata ezberdintasuna: [1.531,48€ urtean \(2014ko II hiruhilekoan\)](#)

Iturriak: Gazteriaren Euskal Behatokia, Eustat, Observatorio Joven de la Emancipación.

Bestalde, “lan baldintza prekarioen lista honi” normalean estatistikoki neurtzen ez diren beste errealitate batzuk gehitu nahi izan dizkio, hala nola, “gehiegizko lan kargak, ordutegi txarak, negoziazio kolektiboa oztopatzen duten lanpostuak, ezkutuko ekonomiaren lanpostuak, mugikortasun geografiko handia eta subkontratazioa”.

***Hiru paragrafo hauetatik bat aukeratu kasuak kasu:**

a) Hemen pairatutako prekarietateari zuzenduriko paragrafoa

Ezegonkortasun eta urrakortasun egoera hau “gazteek duten langabeziaren estaldura txikiagoa eta diru sarrerak bermatzeko laguntzak jasotzeko dituzten zailtasun handiagoengatik” areagotzen dela azaldu dute. Horrek, “enplegu batzuetan ezartzen diren gehiegizko baldintzen aurrean babesik gabe uzten ditu”. Horrela ba, besteak beste, “osasun estaldura txikitu eta langileria babesik gabe utzi duten azken lan eta osasun erreformen ondorioz, gazteria gero eta egoera txarrago batean dago”.

b) EMIGRAZIO paragrafoa

Lan baldintza hauei hobetzeko aukera falta eta azken lan eta osasun erreformek gauzatutako eskubide sozioekonomikoen urraketa gehitzen badiegu, gaur egungo egoerak gazte asko atzerrian etorkizun hobe bat bilatzera bultzatzen ari dela ikus dezakegu, behartutako eta ez hautatutako emigrazioa sustatuz. Hala ere, emigratzerakoan prekarietatea ez da desagertzen eta kasu askotan atzerriko herrialdeetan lan osasuna kaltetzen duten baldintzak topatzen dituzte gazteek .

c) autoenplegu eta autonomo faltsuen paragrafoa

Lan baldintza hauek, etorkizunean egoera hobetzeko aukera falta eta “ekintzaitzaren inguruan sustatzen ari den irudi idilikoak, gazte asko negozio bat



haien kontu jartzen saiatzera bultzatzen ari dira. Kasu askotan, bakoitzaren kontu lan egitean izaten diren baldintzak 'autoesplotaziotik' hurbil daude edo gazte hauek 'autonomo faltsuak' bezala lan egiten dute, eta ondorioz, haien osasuna kaltetu egiten da”.

LAN OSASUNA ETA GAZTERIAREN ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Bestalde, gazteen lana sustatzeko gailendu diren estrategiak ez dutela egoera hau hobetzen lagundu dio Kontseiluak. Alde batetik, “kezkarria da geroz eta gehiago kontratazio formula bereziak sustatzea (praktikak, bekaka...). Formula hauek langileen eskubide sozioekonomikoak murriztean oinarritzen dira eta, askotan, ez dute enpresarekiko lan harreman bat ezartzen eta, beraz, egoera hauetan ematen diren lan istripuek ez dira estatistika ofizialetan ageri”.

Horrela ba, adierazi dute “ez lan emigrazioa eta ezta autoenplegu/ekintzailtza ez daudela gazteak lan eskubide berdinekin enplegu bat lortzeko pentsatuak”. Besteak beste, “estrategia hauei loturiko arrisku asko ez direla azalaratzen” azpimarratu dute.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Eszenatoki honen aurrean, Administrazioari “lan osasunaren arautegia betearazi eta lan ikuskaritzak sustatu ditzala” eskatu dio EGK-k. Horretaz gain, hurrengo neurriak hartu ditzan eskatu dio:

- Langileria modu larrian kaltetu duten azken lan erreformak bertan behera utzi, lanaren desintentzifikazioa sustatzeko neurriak martxan jarri eta behin-behinekotasuna, subkontratazioa eta ordu extrak mugatu.
- Negoziazio kolektiboaren egoera lehengoratu eta gazteriaren parte-hartze sindikal eta laborala sustatu, horretarako baldintza egokiak eta bideak eskainiz.
- Laneko gaixotasunen hantzemate eta prebentzioan Osakidetza eta Osalaren parte-hartze handiagoa, bai eta prekarietatea eta langabeziarekin loturiko gaixotasunetan ere.
- Kontratazio formula berezien gaineko kontrol eta ikuskaritza gehiago. Horretaz gain, lan postuak behar duen kualifikazioa eta enpresak langileari eskatzen dion ikasketa eta beharren mailaren arteko oreka sustatzeko neurrien garapena, eta enpresak lanposturako garrantzizkoa den formazioa erraztea, horretarako beharrezko bitartekoak jarriz (denbora eta dirua).
- Zaintza lanen onarpena eta erregulazioa.
- Lan jardunaldiaren ordu jaitsiera.

Bere aldetik, Gazteriaren Kontseiluak gazteek bizi duten lan prekarietatea salatzen jarraitzeko eta "lan-istripuekin amaitu eta gazteen lan osasuna sustatuko duen gizarte ahotsa" artikulatzeko bere **konpromisoa** berretsi du.



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi
“gazteok egina, gazteontzat!”

*Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren 34. Batzar Orokorrean onartutako testua. (ORAINDIK ONARTZEKE)

IV SARE SOZIALEN KUDEAKETA ETA PROTOKOLOAREN ZABALPENA.

1_EGK-k protokolo honen bitartez idazten dituen prentsa oharrak, hurrengo ordena jarraituz gizarteratuko dira:

1.1_WEBgunean argitaratu eta sare sozialetan zabaldu

1.2_Batzorde Iraunkorrari eta EGKko elkarteei posta elektronikoz bidali.

1.3_prentsara bidali.

1.4_EGKkoak ez diren beste elkarte, kolektibo, arduradun politiko, gazteria teknikari, gazteria bulego eta beste administrazioetara posta elektronikoz bidali.

V NON ETA NOIZ

1_gertatutako jakin orduko jarriko da martxan protokoloa, betiere, istripua gertatu zenetik bi egun pasatu ez badira dagoeneko. Gertakaria jai egun batean izan baldin bada, hurrengo lan egunean jarriko da martxan, ordurako epez kanpo ez baldin badago.

2_behin prentsa oharra argitaratuta, EGKren webgunean zein sare sozialetan gertakariaren inguruko berri eta artikuloak argitaratuko dira, hauek egotekotan.

VI ARDURAK

1_protokoloa martxan jarri, prentsa oharrak idatzi: enplegu teknikaria eta komunikazio teknikaria. Dena den, gaur egun EGK-k duen lan karga handia dela eta, eta prozedurak azkarrago izan daitezen, talde tekniko zein Batzorde Iraunkorreko edo Batzar Orokorreko edozein pertsonak gertakaria talde teknikoaren jakinean jartzeko ardura izango du, hauek protokoloa martxan jar dezaten.

2_prentsa oharraren zabalpena, hau sare sozialetan zabaltzea eta prentsarekin harremana: komunikazio teknikaria.



3_protokolo honetatik kanpo dagoen edozer, presidentea eta Batzorde Iraunkorarekin elkarlanean egingo da.



Larri zauritu den gaztearen lan istripua salatu du Gazteriaren Kontseiluak

Prekarietateak pertsona gazteen osasuna kaltetzen duela azaldu du gazte-elkarguneak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 1ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) **gazte langile bat zauritua izan den lan istripu larri bat gertatu dela salatu du prentsa ohar baten bitartez.** 30 urteko langilea asteartean hil zen, irailak 30, Elorrioko metalgintza enpresa batean lan egiten zuen bitartean. Dirudienez, lanean zebilen makinan arrapatuta geratu zen gaztea.

Gazteariaren Kontseiluak "istripu honen ondorio larriak sentitu" ditu eta "gaztea laster hobetu dadin" espero du. "Beste behin ere, lan istripu larri batean gazte bat kaltetuta izana" deitoratu du EGK-k.

Gazte elkartearen sareak azaldu duenez, "prekarietatea eta **lan baldintza kaskarrak lan-istripuen, lan-gaixotasunen eta lan-osasunaren okertzearen zergati zuzen bat dira**".

Hori dela eta, Gazteriaren Kontseiluak "gaztearen lan baldintza prekarioak hobetu ordez, azken urteetan nabarmenki kaskartzen ari direla" ohartarazi du. Horretaz gain, "egoera honek gazteen osasun fisiko eta mentalean eragin kaltegarriak dituela eta lan istripuak zein prekarietatearekin harremana duten gaixotasunak pairatzeko aukerak areagotzen dituela" gehitu du.

Ildo honetan, EGK-k "gazteen lan egoera latza islatzen duten estatistika kezkarriak" gogoratu ditu:

- Langabezia: **%28,4 (2014an)**
- Behinbehinekotasuna: **%56,8 (2013an)**
- Gainkualifikazioa: **%63,0 (2014ko II hiruhilekoan)**
- Batz besteko soldata: **13.541,62€ (2014ko II hiruhilekoan)**
- Emakume eta gizon gazteen arteko soldata ezberdintasuna: **1.531,48€ urtean (2014ko II hiruhilekoan)**

Iturriak: Gazteriaren Euskal Behatokia, Eustat, Observatorio Joven de la Emancipación.

Bestalde, "lan baldintza prekarioen lista honi" normalean estatistikoki neurtzen ez diren beste errealitate batzuk gehitu nahi izan dizkio, hala nola, "gehiegizko lan kargak, ordutegi txarak, negoziazio kolektiboa oztopatzen duten lanpostuak,



ezkutuko ekonomiaren lanpostuak, mugikortasun geografiko handia eta subkontratazioa”.

a) Hemen pairatutako prekarietateari zuzenduriko paragrafoa

Ezegonkortasun eta urrakortasun egoera hau “gazteek duten langabeziaren estaldura txikiagoa eta diru sarrerak bermatzeko laguntzak jasotzeko dituzten zailtasun handiagoengatik” areagotzen dela azaldu dute. Horrek, “enplegu batzuetan ezartzen diren gehiegizko baldintzen aurrean babesik gabe uzten ditu”. Horrela ba, besteak beste, “osasun estaldura txikitu eta langileria babesik gabe utzi duten azken lan eta osasun erreformen ondorioz, gazteria gero eta egoera txarrago batean dago”.

b) EMIGRAZIO paragrafoa

Lan baldintza hauei hobetzeko aukera falta eta azken lan eta osasun erreformek gauzatutako eskubide sozioekonomikoen urraketa gehitzen badiegu, gaur egungo egoerak gazte asko atzerrian etorkizun hobe bat bilatzera bultzatzen ari dela ikus dezakegu, behartutako eta ez hautatutako emigrazioa sustatuz. Hala ere, emigratzerakoan prekarietatea ez da desagertzen eta kasu askotan atzerriko herrialdeetan lan osasuna kaltetzen duten baldintzak topatzen dituzte gazteek .

c) Autoenplegu eta autonomo faltsuen paragrafoa

Lan baldintza hauek, etorkizunean egoera hobetzeko aukera falta eta “ekintzaitzaren inguruan sustatzen ari den irudi idilikoak, gazte asko negozio bat haien kontu jartzen saiatzera bultzatzen ari dira. Kasu askotan, bakoitzaren kontu lan egitean izaten diren baldintzak ‘autoesplotaziotik’ hurbil daude edo gazte hauek ‘autonomo faltsuak’ bezala lan egiten dute, eta ondorioz, haien osasuna kaltetu egiten da”.

LAN OSASUNA ETA GAZTERIAREN ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Bestalde, gazteen lana sustatzeko gailendu diren estrategiak ez dutela egoera hau hobetzen lagundu dio Kontseiluak. Alde batetik, “kezkgarria da geroz eta gehiago kontratazio formula bereziak sustatzea (praktikak, bekaka...). Formula hauek langileen eskubide sozioekonomikoak murriztean oinarritzen dira eta, askotan, ez dute enpresarekiko lan harreman bat ezartzen eta, beraz, egoera hauetan ematen diren lan istripuek ez dira estatistika ofizialetan ageri”.

Horrela ba, adierazi dute “ez lan emigrazioa eta ezta autoenplegu/ekintzaitza ez daudela gazteak lan eskubide berdinekin enplegu bat lortzeko pentsatuak”. Besteak beste, “estrategia hauei loturiko arrisku asko ez direla azalaratzen” azpimarratu dute.



HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

Eszenatoki honen aurrean, Administrazioari "lan osasunaren arautegia betearazi eta lan ikuskaritzak sustatu ditzala" eskatu dio EGK-k. Horretaz gain, hurrengo neurriak hartu ditzan eskatu dio:

- Langileria modu larrian kaltetu duten azken lan erreformak bertan behera utzi, lanaren desintentzifikazioa sustatzeko neurriak martxan jarri eta behin-behinekotasuna, subkontratazioa eta ordu extrak mugatu.
- Negoziazio kolektiboaren egoera lehengoratu eta gazteriaren parte-hartze sindikal eta laborala sustatu, horretarako baldintza egokiak eta bideak eskainiz.
- Laneko gaixotasunen hantzemate eta prebentzioan Osakidetza eta Osalaren parte-hartze handiagoa, bai eta prekarietatea eta langabeziarekin loturiko gaixotasunetan ere.
- Kontratazio formula berezien gaineko kontrol eta ikuskaritza gehiago. Horretaz gain, lan postuak behar duen kualifikazioa eta enpresak langileari eskatzen dion ikasketa eta beharren mailaren arteko oreka sustatzeko neurrien garapena, eta enpresak lanposturako garrantzizkoa den formazioa erraztea, horretarako beharrezko bitartekoak jarriz (denbora eta dirua).
- Zaintza lanen onarpena eta erregulazioa.
- Lan jardunaldiaren ordu jaitsiera.

Bere aldetik, Gazteriaren Kontseiluak gazteek bizi duten lan prekarietatea salatzen jarraitzeko eta "lan-istripuekin amaitu eta gazteen lan osasuna sustatuko duen gizarte ahotsa" artikulatzeko bere **konpromezua** berretsi du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi
"gazteok egina, gazteontzat!"

*Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren 34. Batzar Orokorrean onartutako testua. (ORAINDIK ONARTZEKE)

www.egk.org

Ramiro de Maeztu, 15, 01008 - Vitoria-Gasteiz / 945 22 06 01
Autonomia, 44, 48010 - Bilbao / 944 43 61 43
Andia, 11 nagusia, 1. pisua, 20004 - Donostia / 943 42 97 67



Lanpostuan zendu den gaztearen heriotza salatu du Gazteriaren Kontseiluak

Prekarietateak pertsona gazteen osasuna kaltetzen duela azaldu du gazte-elkarguneak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 1ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) **gazte langile batek lanpostuan zegoela zendu izana salatu du prentsa ohar baten bitartez.** 30 urteko langilea asteartean hil zen, irailak 30, Elorrioko metalgintza enpresa batean lan egiten zuen bitartean. Dirudenez, lanean zebilen makinan arrapatuta geratu zen gaztea.

Gazteariaren Kontseiluak bere "atsekabea" adierazi du eta "familia eta lagunei besarkada bat" bidali nahi izan die. "Beste behin ere, gazte batek lanean zegoela bizitza galdu izana" deitoratu du EGK-k.

Gazte elkartearen sareak azaldu duenez, "prekarietatea eta **lan baldintza kaskarrak lan-istripuen, lan-gaixotasunen eta lan-osasunaren okertzearen zergati zuzen bat dira**".

Hori dela eta, Gazteriaren Kontseiluak "gaztearen lan baldintza prekarioak hobetu ordez, azken urteetan nabarmenki kaskartzen ari direla" ohartarazi du. Horretaz gain, "egoera honek gazteen osasun fisiko eta mentalean eragin kaltegarriak dituela eta lan istripuak zein prekarietatearekin harremana duten gaixotasunak pairatzeko aukerak areagotzen dituela" gehitu du.

Ildo honetan, EGK-k "gazteen lan egoera latza islatzen duten estatistika kezkagarriak" gogoratu ditu:

- Langabezia: **%28,4 (2014an)**
- Behinbehinekotasuna: **%56,8 (2013an)**
- Gainkualifikazioa: **%63,0 (2014ko II hiruhilekoan)**
- Batz besteko soldata: **13.541,62€ (2014ko II hiruhilekoan)**
- Emakume eta gizon gazteen arteko soldata ezberdintasuna: **1.531,48€ urtean (2014ko II hiruhilekoan)**

Iturriak: Gazteriaren Euskal Behatokia, Eustat, Observatorio Joven de la Emancipación.

Bestalde, "lan baldintza prekarioen lista honi" normalean estatistikoki neurtzen ez diren beste errealitate batzuk gehitu nahi izan dizkio, hala nola, "gehiegizko lan kargak, ordutegi txarak, negoziazio kolektiboa oztopatzen duten lanpostuak,



ezkutuko ekonomiaren lanpostuak, mugikortasun geografiko handia eta subkontratazioa”.

a) **Hemen pairatutako prekarietateari zuzenduriko paragrafoa**

Ezegonkortasun eta urrakortasun egoera hau “gazteek duten langabeziaren estaldura txikiagoa eta diru sarrerak bermatzeko laguntzak jasotzeko dituzten zailtasun handiagoengatik” areagotzen dela azaldu dute. Horrek, “enplegu batzuetan ezartzen diren gehiegizko baldintzen aurrean babesik gabe uzten ditu”. Horrela ba, besteak beste, “osasun estaldura txikitu eta langileria babesik gabe utzi duten azken lan eta osasun erreformen ondorioz, gazteria gero eta egoera txarrago batean dago”.

b) **EMIGRAZIO paragrafoa**

Lan baldintza hauei hobetzeko aukera falta eta azken lan eta osasun erreformek gauzatutako eskubide sozioekonomikoen urraketa gehitzen badiegu, gaur egungo egoerak gazte asko atzerrian etorkizun hobe bat bilatzera bultzatzen ari dela ikus dezakegu, behartutako eta ez hautatutako emigrazioa sustatuz. Hala ere, emigratzerakoan prekarietatea ez da desagertzen eta kasu askotan atzerriko herrialdeetan lan osasuna kaltetzen duten baldintzak topatzen dituzte gazteek .

c) **Autoenplegu eta autonomo faltsuen paragrafoa**

Lan baldintza hauek, etorkizunean egoera hobetzeko aukera falta eta “ekintzaitzaren inguruan sustatzen ari den irudi idilikoak, gazte asko negozio bat haien kontu jartzen saiatzera bultzatzen ari dira. Kasu askotan, bakoitzaren kontu lan egitean izaten diren baldintzak ‘autoesplotaziotik’ hurbil daude edo gazte hauek ‘autonomo faltsuak’ bezala lan egiten dute, eta ondorioz, haien osasuna kaltetu egiten da”.

LAN OSASUNA ETA GAZTERIAREN ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Bestalde, gazteen lana sustatzeko gailendu diren estrategiak ez dutela egoera hau hobetzen lagundu dio Kontseiluak. Alde batetik, “kezkarria da geroz eta gehiago kontratazio formula bereziak sustatzea (praktikak, bekaka...). Formula hauek langileen eskubide sozioekonomikoak murriztean oinarritzen dira eta, askotan, ez dute enpresarekiko lan harreman bat ezartzen eta, beraz, egoera hauetan ematen diren lan istripuek ez dira estatistika ofizialetan ageri”.

Horrela ba, adierazi dute “ez lan emigrazioa eta ezta autoenplegu/ekintzaitza ez daudela gazteak lan eskubide berdinekin enplegu bat lortzeko pentsatuak”. Besteak beste, “estrategia hauei loturiko arrisku asko ez direla azalaratzen” azpimarratu dute.



HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Eszenatoki honen aurrean, Administrazioari "lan osasunaren arautegia betearazi eta lan ikuskaritzak sustatu ditzala" eskatu dio EGK-k. Horretaz gain, hurrengo neurriak hartu ditzan eskatu dio:

- Langileria modu larrian kaltetu duten azken lan erreformak bertan behera utzi, lanaren desintentzifikazioa sustatzeko neurriak martxan jarri eta behin-behinekotasuna, subkontratazioa eta ordu extrak mugatu.
- Negoziazio kolektiboaren egoera lehengoratu eta gazteriaren parte-hartze sindikal eta laborala sustatu, horretarako baldintza egokiak eta bideak eskainiz.
- Laneko gaixotasunen hantzemate eta prebentzioan Osakidetza eta Osalaren parte-hartze handiagoa, bai eta prekarietatea eta langabeziarekin loturiko gaixotasunetan ere.
- Kontratazio formula berezien gaineko kontrol eta ikuskaritza gehiago. Horretaz gain, lan postuak behar duen kualifikazioa eta enpresak langileari eskatzen dion ikasketa eta beharren mailaren arteko oreka sustatzeko neurrien garapena, eta enpresak lanposturako garrantzizkoa den formazioa erraztea, horretarako beharrezko bitartekoak jarriz (denbora eta dirua).
- Zaintza lanen onarpena eta erregulazioa.
- Lan jardunaldiaren ordu jaitsiera.

Bere aldetik, Gazteriaren Kontseiluak gazteek bizi duten lan prekarietatea salatzen jarraitzeko eta "lan-istripuekin amaitu eta gazteen lan osasuna sustatuko duen gizarte ahotsa" artikulatzeko bere **konpromezua** berretsi du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi
"gazteok egina, gazteontzat!"

*Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren 34. Batzar Orokorrean onartutako testua. (ORAINDIK ONARTZEKE)

www.egk.org

Ramiro de Maeztu, 15, 01008 - Vitoria-Gasteiz / 945 22 06 01
Autonomia, 44, 48010 - Bilbao / 944 43 61 43
Andia, 11 nagusia, 1. pisua, 20004 - Donostia / 943 42 97 67